que por las razones indicadas por el equipo de gobierno se van a abstener.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 8 votos a favor, GUK, EH Bildu; 16 abstenciones, PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos.

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Entre los servicios que ofertan las bibliotecas de Getxo, se encuentra la preparación de un CD con fotos de Getxo, para verlas en los ordenadores de la biblioteca o para que quien quiera solicite una copia de las fotos que aparezcan en el CD. En el mismo se recogen muchas fotos de Getxo, tanto antiguas como actuales.

El problema es que las fotos no siguen una clasificación, ni cronológica, ni por temas, ni por autor; su único título es el número. Por lo tanto, cuando alguien necesita una foto de un tema, un edificio, una persona o un lugar, tiene que mirarlas todas hasta encontrar la que quiere.

Sabemos que además de las anteriores, la Casa Cultura conserva muchas fotos. A esas habrá que añadirles el material tanto audiovisual como de imagen que se produzca en el departamento de comunicación municipal.

Gran parte de ese material ha sido cedido por particulares al pueblo de Getxo y otra parte es la que gestiona el propio ayuntamiento. Por ello, este archivo de imágenes y de material audiovisual es patrimonio de todos los getxoztarras.

Hori dela eta, honako proposamena aurkezten dugu Udalbatza honek onar dezan:

1. Udal artxibo ezberdinetan dagoen irudi zein ikus-entzunezko materiala jaso, sailkatu, kodetu eta artxibatzeko helburua izango duen beka berezia sortzea 2016 eta 2017 urte bitartean, Bibliotekonomia eta Dokumentagintza arloko ikasketa duten graduatu berriei zuzenduta.

2. Aipaturiko lana egin ondoren, irudi eta ikus-entzunezko dokumentuak jasoko dituen katologoa sortzea.

3. Egileen eskubideen babesak ezarritako baimen-baldintzetan, material hori publikoaren eskura jartzea Getxoko liburutegietan, zein webgunean.

4. Material horren lagapena edo kopia ahalbidetzea, legeak ezarritako baldintzen eta dokumentuei dagozkien tasen arabera.

Por ello, presentamos esta propuesta, para que sea aprobada por el pleno:

1. Crear en el periodo 2016-2017 una beca especial que tenga como objetivo recoger el material de imagen y audiovisual que hay en los diversos archivos municipales, clasificarlo, codificarlo y archivarlo. Será una beca dirigida a recién graduados con estudios en el ámbito de la Biblioteconomía y la Documentación.

2. Después de realizar el trabajo mencionado, crear un catálogo que recoja los documentos de imagen y audiovisuales.

3. Poner ese material a disposición del público en las bibliotecas de Getxo y en la página web, todo ello en las condiciones de licencia establecidas por la protección de derechos de autor.

4. Permitir la cesión y copia de ese material, de acuerdo con las condiciones establecidas por la ley y con las tasas correspondientes a los documentos.

## 48.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ENERGIA-POBREZIA

Oier Iturraldek mozioa irakurri du.

Teresa Escalantek hitza hartu du honako hau adierazteko: PSE-EEk, gobernuko erantzukizunak dituen tokietan eta baita Eusko Legebiltzarrean ere, gai hori planteatu duela, eta 2015eko aurrekontuetan laguntzen partida bat lortu zutela energia pobretasunari aurre egiteko. Energia zorrak negoziatzeko

## 48.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/LA POBREZA ENERGÉTICA.

Oier Iturralde da lectura a la moción.

Teresa Escalante interviene para indicar que el PSE-EE donde tiene responsabilidades de gobierno y también en el Parlamento Vasco ha suscitado esta cuestión y que consiguieron que en el presupuesto del 2015 se incorporara una partida de ayudas para hacer frente a la pobreza energética. También han insistido en

enpresekin akordioak izenpetzea ere azpimarratu du. Energia pobretasunaren arrazoiak gobernu zentralaren politika kontserbadorean kokatzen dituzte eta, beraz, mozioaren aldeko botoa emango dute.

acuerdos con las empresas para renegociar las deudas energéticas. Ubican las causas de la pobreza energética en la política conservadora del gobierno central, por lo que votarán a favor de la moción.

Elena Coriak energia pobretasuna pobreziaren adierazpide bat gehiago dela esan du, eta bertan egoera ekonomikoa, etxebizitzaren egoera eta abar elkartzen direla. Babes sozialaren euskal sistemak, gizarteratzeko errenten eta beste laguntza mota batzuen bidez, milaka familiari egoera horri aurre egiteko aukera ematen diela adierazi du, eta udalak ere hortik kanpo egoera jakin batzuetan jarduten duela. Gai horretan, beste batzuetan bezala, arazoari orokorrean aurre egin behar zaiola iritzi du, eta Arartekoak dioen moduan, fakturen ordainketen gainean baino garrantzitsuagoa da etxebizitzen gainean jardutea; arrazoi hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak, Energiaren Euskal Erakundearen bidez, eraginkortasun energetikoko proiektuak sustatzen ditu. Gizarte Zerbitzuek laguntza ekonomikoekin jarduten duela esan du, eta Eudel Iberdrolarekin hitzarmen bat izenpetzeko lanean ari dela. Mozioari dagokionez, abstenitu egingo dira proposatutakoa aztertzeko konpromisoarekin.

Elena Coria indica que la expresión pobreza energética es una expresión más de pobreza en la que confluye tanto la situación económica como la situación de la vivienda, etc. Manifiesta que el sistema vasco de protección social posibilita, a través de las rentas de inserción y de otros tipos de ayudas, a millares de familias el poder hacer fente a esta situación y también el ayuntamiento aparte actúa en determinadas situaciones. Opina que en este tema, como en otros, hay que afrontar el problema en global y como dice el Ararteko es más importante actuar sobre las viviendas que sobre pagos de facturas y por eso el Gobierno Vasco, a través del EVE, fomenta proyectos de eficiencia energética. Indica que desde Servicios Sociales se actúa con ayudas económicas y se está trabajando desde Eudel en un convenio con Iberdrola. Respecto a la moción se abstendrán con el compromiso de valorar lo propuesto.

Iñaki Amorrortuk aipatu duenez, dagoen arazoa kontuan hartuz, laguntza oro egokia da, eta GUK taldearen helburua da Getxon energia pobretasunarekin amaitzea; hala, gobernuko taldeari dauden laguntzak gehiago publizitatzeko eskatu dio.

Iñaki Amorrortu indica que conociendo la problemática existente toda ayuda es buena y es un objetivo de GUK erradicar la probreza energética en Getxo y pide al equipo de gobierno que publicite más las ayudas existentes.

Santiago Sainzek dio energia pobretasunaren aurkako borroka 2011. urtetik hona Ciudadanosek egiten

Santiago Sainz indica que la lucha contra la pobreza energética la está llevando Ciudadanos desde el 2011 en

duela bere programan eta beraz, mozioa babestuko duela.

su programa por lo que apoyará la moción.

Oier Iturraldek entzundako hitzak eskertu ditu, bai eta egiten ari den lana ere; Iberdrolarekin izenpetu nahi den hitzarmena beste konpainia hornitzaile batzuetara zabaltzeko eskatu du.

Oier Iturralde agradece las intervenciones realizadas así como el trabajo que se viene realizando y pide que el convenio que se está planteando con Iberdrola se extienda a otras compañías suministradoras.

Mozioa bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: aldeko 11 boto (GUK, EH Bildu, PSE-EE, Ciudadanos) eta 13 abstentzio (EAJ-PNV, PP).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, GUK, EH Bildu, PSE-EE, Ciudadanos; 13 abstenciones, PNV, PP.

Eduardo Andrade bilkurara itzuli da berriz.

Se reincorpora a la sesión Eduardo Andrade.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Arartekoak berriki 1/2016 Gomendio Orokorra zuzendu die euskal adiministrazioei pobrezia energetikoari buruz. XXI. mendean murgilduta bagaude ere, Euskadin jende askok oraindik benetako arazoak dauzka hilabete hotzetan bere etxean tenperatura egokia mantentzeko. Arartekoaren datuen arabera, 2014. urtean, 235.000 pertsonak baino gehiagok izan dute arazo hori, nahiz eta 2008an ez ziren 90.000ra iristen. Fenomeno horri energia-pobrezia deritzo. Baliabide ekonomiko nahikoak ez izateak sortzen du, baina baita ere etxebizitzaren baldintza objektibo txarrek edo energia-baliabideen gehiegizko prezioak.

Recientemente, el Ararteko ha dirigido a las administraciones vascas la Recomendación General 1/2016 sobre pobreza energética.
A pesar de estar en el siglo XXI, en Euskadi todavía hay muchas personas que tienen serios problemas para mantener una temperatura adecuada en sus hogares durante los meses fríos. Según los datos del Ararteko, en 2014, más de 235.000 personas tuvieron este problema, mientras que en el año 2008 esa cifra no llegaba a los 90.000. A este fenómeno se le denomina pobreza energética. Se produce por no tener suficientes recursos económicos, pero también puede surgir a consecuencia de las malas condiciones objetivas de la vivienda o los precios elevados de los recursos energéticos.

Energia-baliabideen eskasia ez dago lotuta pertsonen egoera ekonomikoarekin bakarrik. Energiaren beharra estu lotuta dago etxebizitzen baldintza objektiboekin (etxebizitza

La escasez de recursos energéticos no está ligada exclusivamente a la situación económica de las personas. La necesidad de energía está estrechamente ligada a las condiciones

mota, bere materialak, isolamendua edo aurrezpena eta energia-eragingarritasuna lortzeko neurriak). Energia-zerbitzuez hornitzeko merkatuaren baldintzekin ere lotuta dago (zerbitzuaren kostuak edo energia-iturriak eskuratzeko sistema zentralizatua edo deszentralizatua den). Horrela, energia-pobreziak ez die eragiten errentarik txikieneko pertsonei soilik, baizik eta gehiegizko energia-gastua egiteko arriskuan dauden beste talde batzuetara ere heda ditzake bere ondorioak. Arrisku hori eraikuntza-baldintza txarrek edo energiaren gehiegizko kostuak eragiten dute.

Erkidegoko araudiak agintzen die botere publikoei energia-pobrezia prebenitzeko eta horren ondorioak arintzeko estrategia bat presta dezatela. Estrategia horretan aintzat hartu behar dira orain arte gai horretaz egindako arauetan ezarri diren printzipioak eta zerbitzu publikoa egiteko betebeharrak.

Arartekoaren arabera, gizarte-bazterketa modu hori desagerrarazteko neurri publiko edo itunduetan, honako arlo hauek hartu behar dira kontuan:

1. Energia-sektorearen eta kontsumitzaile ahulenen erregulazio-eremua.
1.1. Euskadin energia-pobreziaren kontra borrokatzeko plan bat ezartzea.
1.2. Energia-pobrezia pairatzeko arriskuan dauden energia-kontsumitzaileak definitzea.

2. Energia-kontsumitzaile ahulenak babesteko neurriak.

2.1. Talderik ahulenei energia-hornidura bermatzea.

objetivas de la vivienda (el tipo de vivienda, sus materiales, aislamiento o ahorro y las medidas para obtener eficiencia energética). Además, está relacionada con las condiciones del mercado para suministrar servicios energéticos (costes del servicio o si el sistema para obtener fuentes de energía está centralizado o descentralizado). Así, la pobreza energética no afecta solo a las personas con renta baja, sino que sus consecuencias se pueden extender a otros grupos que estén en peligro de hacer un gasto energético excesivo. Ese peligro surge a raíz de las malas condiciones de los edificios o los costes excesivos de la energía.

La normativa de la comunidad exige a los poderes públicos que preparen una estrategia para prevenir la pobreza energética y atenuar las consecuencias de la misma. En esa estrategia hay que tener en cuenta los principios establecidos en las normas diseñadas en esa materia y las obligaciones de prestar el servicio público.

Según el Ararteko, en las medidas públicas o pactadas para eliminar ese tipo de exclusión social, es necesario tener en cuenta estos ámbitos:

1. El ámbito de regulación del sector energético y de los consumidores más vulnerables.
1.1. Establecer en Euskadi un plan para luchar contra la pobreza energética.
1.2. Definir los consumidores de energía que están en riesgo de sufrir pobreza energética.

2. Medidas para proteger a los consumidores de energía más vulnerables.
2.1. Garantizar el suministro de energía a los grupos de personas más

vulnerables.

2.2. Informazio egokia jasotzeko eskubidea, energia-kontsumitzaile ahulenaren ikuspegitik.

2.2. El derecho a recibir información adecuada, desde el punto de vista del consumidor de energía más vulnerable.

3. Energia-pobreziak eragindako etxe eta eraikinetan energia-eragingarritasuna hobetzeko neurriak.

3. Medidas para mejorar la eficiencia energética en las viviendas y en los edificios afectados por la pobreza energética.

3.1. Energia-ikuskapenak bezerorik ahulenentzat.

3.1. Revisiones energéticas para los clientes más vulnerables.

3.2. Babes publikoko etxebizitza multzoaren energia-eragingarritasuna aztertzea.

3.2. Examinar la eficiencia energética del conjunto de viviendas de protección oficial.

3.3. Energia berriztatzeko laguntzak talderik ahulenentzat.

3.3. Ayudas para renovar la energía a los grupos más vulnerables.

4. Energia-pobreziaren ondorioak arintzeko gizarte-neurriak.

4. Medidas sociales para atenuar las consecuencias de la pobreza energética.

4.1. Gizarte larrialdietako laguntzak, energia-pobreziak eragindako etxeetan energia eragingarria izan dadin.

4.1. Ayudas de emergencia social, para que la energía sea eficaz en aquellas viviendas afectadas por la pobreza energética.

4.2. Laguntzak energia-aurrezpenarekin uztartzea.

4.2. Integrar las ayudas con el ahorro energético.

Getxoko Udala ezin da afera honetatik at geratu, gai honek modu zuzenean eragiten baitie gure auzokideei. Udala herritarrengandik gertuen dagoen administrazioa izanik auzokideak egoera horietatik babestea da bere ardura. Jakin badakigu udalak modu orokorrean etxebizitzaren mantenua eta ekipamendurako laguntzak ematen dituela Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baitan, baina mozio honen bitartez aurkezten dugun eskakizuna haratago doa. Horregatik gaiari modu sakonagoan heltzea beharrezkoa dela uste dugu. Pobrezi energetikoak arlo ezberdinei eragiten dien heinean udal sail ezberdinek, hirigintza eta gizarte zerbitzuak kasu, era bateratuan landu beharko dute gaia fenomeno hau murriztu eta Getxoztarren eskura bere ondorioak arinduko dituen gizarte

El Ayuntamiento de Getxo no puede ser ajeno a este tema; de hecho, este tema afecta directamente a nuestros vecinos. El ayuntamiento es la administración más cercana a los ciudadanos; por ello, su responsabilidad es protegerlos de este tipo de situaciones. Somos conscientes de que el ayuntamiento proporciona en general ayudas para el mantenimiento y el equipamiento de las viviendas dentro de las Ayudas de Emergencia Social. Sin embargo, la petición que presentamos mediante esta moción va más allá. Por lo tanto, creemos que es necesario abordar el tema de una manera más profunda. La pobreza energética afecta a diferentes ámbitos. Por ello, los departamentos municipales, como urbanismo y servicios sociales, tienen que abordar

neurriak martxan jarri daitezen.

este tema conjuntamente, para reducir este fenómeno y para poner a disposición de los getxoztarras medidas sociales que atenúen las consecuencias del mismo.

Aurreko guztiagatik, GETXOKO OSOKO BILKURAK honako akordio proposamena onartu egiten du:

Por ello, EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO aprueba la siguiente propuesta de acuerdo:

1. Arartekoak ezarritako terminoetan, energia-kontsumitzaile ahulenak babesteko neurriak, etxe eta eraikinetan energia-eragingarritasuna hobetzeko tresnak eta energia-pobreziaren ondorioak arintzeko gizarte-neurriak barnebilduko dituen udal plana eratuko da lehentasunezko moduan. Horretarako sail ezberdinek, hirigintza eta gizarte-zerbitzuak kasu, modu bateratuan egingo dute lan.

1. En los términos establecidos por el Ararteko, creará como prioridad un plan municipal que incluirá medidas para proteger a los consumidores de energía más vulnerables, las herramientas para mejorar la eficiencia energética en las viviendas y los edificios y las medidas sociales para atenuar las consecuencias de la pobreza energética. Para ello, los diferentes departamentos, como urbanismo y servicios sociales, trabajarán conjuntamente.

2. Aurreko helburua lortzeko dagokion partida bideratuko da aurrekontuaren baitan.

2. Para conseguir el objetivo anterior, se destinará la partida oportuna dentro del presupuesto.

**49.- CIUDADANOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXORAKO BIZIGUNE PLANA BIZKORTZEA.**

**49.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL CIUDADANOS S/RESUCITAR EL PLAN BIZIGUNE EN GETXO.**

Santiago Sainzek mozioa irakurri du.

Santiago Sainz da lectura a la moción.

Arantza Gutierrezk adierazi duenez, 2014ko ekainean Bizigune plana indartzeko mozio bat aurkeztu zuten; horregatik, zuzenketa transakzional bat aurkeztu eta irakurri du:

Arantza Gutiérrez manifiesta que en junio de 2014 presentaron una moción para fortalecer el plan Bizigune y por ello presenta una enmienda transaccional, a la que da lectura:

*"1. Bizigune programan etxea alokairuan jarri nahi duten jabeei horiek beharrezko baldintzetara egokitzen laguntzeko diru-mailegu edo/eta laguntza lerroa zabalduko*

*"1. Desde el Departamento de Vivienda del Área de Urbanismo se abrirá una línea de préstamos y/o ayudas para que las personas propietarias que deseen poner su vivienda*

*da Hirigintzako Etxebizitza Sailetik.*

*en alquiler dentro del programa Bizigune puedan acondicionar sus viviendas a los requisitos exigidos.*

*2. Diru-laguntza horiek emateko baldintzak zein jabeek hartu beharreko konpromisoak eta kontrol bideak ezartzeko araudia Osoko Bilkura honek onartuko du.*

*2. Este Pleno aprobará la normativa necesaria para establecer las condiciones de esas ayudas, los compromisos que adquieran las personas propietarias así como los instrumentos de control.*

*3.- Lagunzta hauek eta alokatzen dutenek jaso ahal luketeenak bateragarriak dira.*

*3. Estas ayudas serán compatibles con las que pudieran recibir las personas arrendadas para el alquiler.*

*4.- Araudia onartu eta martxan jarritakoan, komunikazio kanpaina berezia egingo da horretarako beharrezkoak diren udal baliabideak (webgunea. Twitter, Irratia, Getxoberri, Bandoa, Herri Panelak etab.) erabiliz."*

*4. Una vez aprobada la normativa y puesta en marcha, se realizará una campaña comunicativa especial utilizando todos los medios municipales (web. Twitter, Getxo Irratia, Getxoberri, Bandos, Paneles ... )"*

Santiago Sainzek zuzenketa onartu du.

Santiago Sainz admite la enmienda.

Joseba Arreguik gogora ekarri du etxebizitza kontuetan talde guztiekin hitz egiten ari direla eta, arrazoi horrengatik, une honetan eduki zehatz hori jasotzen duten mozioak onartzearen aldekoak ez direla; beraz, abstenitu egingo dira.

Joseba Arregui recuerda que en cuestión de viviendas están en conversaciones con todos los grupos y por ello no son favorables a aprobar mociones con este contenido concreto en este momento por lo que se abstendrán.

Enrique Prada gobernuko taldeak esandakoarekin bat dator, eta proposamen hori interesgarria iruditzen zaie, baina zehatzegia dela, eta etxebizitza planari buruz dituzten elkarrizketetan eztabaidatu beharko zela; beraz, abstenitu egingo dira.

Enrique Prada coincide con lo indicado por el equipo de gobierno y cree que esta propuesta les parece interesante pero es demasiado concreta y debería ser objeto de debate en las conversaciones que están manteniendo respecto al plan de vivienda, por lo que se abstendrán.

Miguel Ibabek GUK taldeak nahiz gobernuko taldeak adierazitakoarekin bat datozela esan du eta, beraz, gai horiek etxebizitza planari buruzko elkarrizketen esparruan aztertu behar direla.

Miguel Ibabe manifiesta que están de acuerdo con lo manifestado por GUK y el equipo de gobierno y, por tanto, que estas cuestiones se traten en estos ámbitos de conversaciones sobre el plan de vivienda.

Mozioa bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: aldeko 5 boto (EH Bildu, Ciudadanos) eta 20 abstentzio (EAJ-PNV, PP, GUK eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 5 votos a favor, EH Bildu, Ciudadanos, 20 abstenciones, PNV, PP, GUK, PSE-EE.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Oso ezaguna da Getxon daukagun etxebizitza arazoa. Lehenik eta behin, muga fisikoak dauzkagu. Horregatik, ezin dugu etxebizitza askorik eraiki. Daukagun espazioa oso ondasun urria da, eta aukera-kostua zehatz-mehatz neurtu behar da. Bigarrenik, etxebizitza huts asko daude, 3.500 inguru.

En Getxo es conocido el problema de vivienda que tenemos. En primer lugar, tenemos que hacer frente a limitaciones físicas. Esto hace que no podamos construir muchas viviendas. El espacio del que disponemos es un bien escaso y hay que medir el Coste de Oportunidad al milímetro. En segundo lugar, la gran cantidad de viviendas vacías existentes, alrededor de 3.500.

2014ko maiatzaren 6an Getxon lankidetza hitzarmena sinatu zuten Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, ALOKABIDE S.A.k eta Getxoko Udalak, etxebizitza hutsa mobilizatzeko.

El 6 de mayo de 2014 se firmo en Getxo el Convenio de colaboración entre el Departamento de empleo y políticas sociales del GV, ALOKABIDE S.A. y el Ayuntamiento de Getxo para la Movilización de vivienda vacía.

Etxebizitzaren jabeak gozamen kontratu bat sinatzen du, 6 urtekoa. Hilean gehienez 450 euro kobratzen ditu trukean, etxebizitza "alokairu sozialerako" lagatzeagatik. Bestalde, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (OHZ) arautzen duen ordenantza fiskalaren 19. artikuluari esker, "etxebizitza hutsaren" programarako lagatzen diren etxebizitzen OHZan % 50eko onura jasotzeko eskubidea dago.

El propietario de la vivienda firma un contrato de usufructo de 6 años que lleva parejo el cobro de una cantidad fija de 450€/mes como máximo por la cesión de la vivienda para el "Alquiler Social". Por otro lado, gracias al artículo 19 de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuestos Bienes Inmuebles (IBI), este también tendrá derecho a una bonificación del 50% de la cuota íntegra del IBI de las viviendas que sean objeto de cesión al Programa de "Vivienda Vacía".

Abantaila horiekin eta Bizigune programan dauden beste berme batzuekin ere, ikusten dugu programa honek ez duela izan berarengandik espero zen eragina. Horregatik proiektua berriro abiatzea proposatzen

Aun con estas ventajas y otras garantías no mencionadas del Programa Bizigune, vemos que no han surtido los efectos deseados. Por ello proponemos relanzar el proyecto y aprovechar de manera social y totalmente voluntaria

dugu, eta Getxon erabili gabe dagoen higiezin-kapitala modu sozial eta guztiz borondatezkoan aprobetxatzea, gure kaleetara bizitasun gehiago erakartzeko.

el capital inmobiliario en desuso de Getxo para atraer más vida a nuestras calles.

ERABAKI PROPOSAMENA:

PROPUESTA DE ACUERDO:

1. Bizigune programan etxea alokairuan jarri nahi duten jabeei horiek beharrezko baldintzetara egokitzen laguntzeko diru-mailegu edo/eta laguntza lerroa zabalduko da Hirigintzako Etxebizitza Sailetik.

1. Desde el Departamento de Vivienda del Área de Urbanismo se abrirá una línea de préstamos y/o ayudas para que las personas propietarias que deseen poner su vivienda en alquiler dentro del programa Bizigune puedan acondicionar sus viviendas a los requisitos exigidos.

2. Diru-laguntza horiek emateko baldintzak zein jabeek hartu beharreko konpromisoak eta kontrol bideak ezartzeko araudia Osoko Bilkura honek onartuko du.

2. Este Pleno aprobará la normativa necesaria para establecer las condiciones de esas ayudas, los compromisos que adquieran las personas propietarias así como los instrumentos de control.

3.- Lagunzta hauek eta alokatzen dutenek jaso ahal luketeenak bateragarriak dira.

3. Estas ayudas serán compatibles con las que pudieran recibir las personas arrendadas para el alquiler.

4.- Araudia onartu eta martxan jarritakoan, komunikazio kanpaina berezia egingo da horretarako beharrezkoak diren udal baliabideak (webgunea. Twitter, Irratia, Getxoberri, Bandoa, Herri Panelak etab.) erabiliz.

4. Una vez aprobada la normativa y puesta en marcha, se realizará una campaña comunicativa especial utilizando todos los medios municipales (web. Twitter, Getxo Irratia, Getxoberri, Bandos, Paneles ... ).

**51.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PREMIAZKO MOZIOA: IÑAKI GONZALO CASALENTZAT BABESAREN ESKEA.**

**51.- MOCIÓN DE URGENCIA PRESENTADA POR EH BILDU S/PETICIÓN DE AMPARO A FAVOR DE IÑAKI GONZALO CASAL.**

Maite Arraizak mozioa irakurri du.

Maite Arraiza da lectura a la moción.

Eduardo Andradek hitza hartu du, eta esan du, badirudiela EH Bilduk PPrekin kanpaina egitea bilatzen duela,

Eduardo Andrade interviene para manifestar que EH Bildu parece que busca hacer campaña con el PP, en

gobernuko taldeen jarduerak kritikatu beharrean. EH Bilduren aholkularia errespetuz eta profesionaltasunez tratatu duela beti esan du, eta EH Bilduren ingurunetik, berriz, irainak eta mehatxuak jaso dituela. Mozioak bere esana zuzendu dezala proposatzen du, hau da, txio batean terrorismoagatik kondenatuko pertsona bati terrorista deitu izanagatik. Pederasta, bortxatzaile edo tratu txarren eragileak beti hori izango direla aipatu du, eta eskala handiagoan daude oraindik terrorismoagatik kondenatutako pertsonak, eta ez diola barkamena eskatuko jendea hil duen talde baten kide izandako pertsona bati, Getxon lehergailuak jarri dituenari, alderdikideak hil dituen pertsonari, bera eta alderdiko jendea mehatxatu dionari. Terrorista horrek hil dituzten alargun nahiz umezurtzek kobratzen dutena baino askoz gehiago kobratzen duela udalean esan du, halaber. 69 urteko espetxe zigorra jaso zuela gogora ekarri du, baina 17 baino ez dituela bete, legeria penalaren arabera, eta terrorista izateari ez diola utzi. Amaitzeko, Coviteren mezu bat irakurri du; bertan, terrorismoagatik zigortutako pertsona batek administrazio publikoan lan egin dezakeen munduko herrialde bakarra dela Espainia esan du, herritarren dirua kobratzen duena; hala, EH Bilduk kontratatu izanaren merezimendu bakarra terrorista izatea dela iritzi du.

lugar de criticar las actuaciones del equipo de gobierno. Indica que siempre ha tratado con respeto y profesionalidad al asesor de EH Bildu mientras que por parte del entorno de EH Bildu ha recibido insultos y amenazas. La moción plantea que se retracte por tuitear llamando terrorista a una persona condenada por terrorismo. Indica que un pederasta o un violador o un maltratador serán siempre eso y en una escala mayor están todavía los condenados por terrorismo y que no va a pedir perdón a una persona que pertenece a un grupo que ha matado gente, ha puesto bombas en Getxo, ha matado a compañeros de partido, ha amenazado a él y gente de su partido. Indica también que este terrorista cobra mucho más en el ayuntamiento que lo que cobran las viudas y huérfanos de los que han matado. Recuerda que fue condenado a 69 años de cárcel pero que únicamente ha cumplido 17, en virtud de la legislación penal y que no ha dejado de ser terrorista. Finaliza dando lectura a un mensaje de Covite, que indica que España es el único país del mundo donde un condenado por terrorismo puede trabajar en la administración pública y cobrar el dinero de los ciudadanos y estima que el único mérito por el que ha sido contratado por EH Bildu es porque ha sido terrorista.

Arantza Gutierrezek Kitxuri maite duela esan dio eta jende gehiagok ere maite duela, maitasunetik hitz egingo duela eta ez gorrototik; ez duela garaile eta garaiturik nahi, garai berri batean gaudela; garai berri batzuen aldeko apustua egin dutela, eta mendekura eramaten duen gorrotoa alde batera utziko dutela. Kitxuk bere zigorra bete

Arantza Gutiérrez indica a Kitxu que le quiere y que también es querido por mucha más gente, que va a hablar desde el amor y no desde el odio y que no quiere vencedores ni vencidos, que estamos en una nueva época y han hecho una apuesta por unos nuevos tiempos y se abstendrán del odio que únicamente lleva a la venganza. Cree

duela uste du, batzuentzat agian ez da nahikoa izango, baina PPk defendatzen duen legezkotasuna bete dela, eta legezkotasun berarekin egin dezakeela lan udalean. Langile fina eta herritarren artean maitatua dela uste du, espetxean izandako urte hauek guztiak prestatzeko baliatu dituela, Getxoko errealitatea hurbiletik jarraitu duela; izan ere, udalerriaz kezkatzen zen, eta lasai uzteko eskatu du. Ez diola inori ezer zor uste du, denak agurtzen eta denekin hitz egiten duela, eta osoko bilkurak bere babesa adieraz dezala espero du.

que Kitxu ha cumplido su pena, que para algunos puede no ser suficiente, pero que se ha cumplido la legalidad que el PP dice defender y que con la misma legalidad puede trabajar como asesor en el ayuntamiento. Cree que es un buen trabajador y apreciado por sus vecinos, que es una persona que ha aprovechado esos años de cárcel para formarse y ha seguido la realidad de Getxo porque le importaba el municipio y pide que le dejen en paz. Cree que no debe nada nadie y a nadie niega el saludo y la conversación y espera que el pleno le manifieste su apoyo.

Jose Luis Landaren aburuz, Kitxu justifikatu gabe iraindu da, eta Eduardo Andradek birgizarteratzean eta zigorren zenbaketan ez duela sinesten uste du. Bere zigorra jadanik bete duela adierazi du. Ez zitzaion osoko bilkuran eta beste udal jardueraren batean iraindu, eta horregatik, ez dela osoko bilkuran aztertzeko gai bat uste du; beraz, ez dute aldeko botorik emango, nahiz eta Kitxuri bere babesa eman.

José Luis Landa opina que Kitxu ha sufrido una ofensa injustificada y estima que Eduardo Andrade no cree ni en la reinserción ni en el cómputo de las penas. Manifiesta que ya ha cumplido su pena y tiene el casillero vacío. El insulto no fue ni en pleno ni en ninguna actividad municipal y por eso entiende que no es un tema de pleno, por lo que no van a votar a favor aunque manifiesta su apoyo a Kitxu.

Paula Amievak esan du ez duela onartzen udal bateko langile bati errespetua galtzea edo iraintzea, eta gauza bera pentsatuko zuela iraindutako pertsona Alderdi Popularreko kide bat balitz ere. Gai horiek ez dute inora eramaten, eta guztientzako errespetua eskatu du.

Paula Amieva manifiesta que no admiten que se falte al respeto o se insulte a un empleado del ayuntamiento y opinaría lo mismo en caso de que el ofendido fuera del Partido Popular. Cree que estas cuestiones no conducen a nada y pide repeto para todos.

Ibon Rodriguezek adierazi duenez, gorrotoa ez da bidea, eta iraina osoko bilkuran ez zela gertatu esan du gai hau aztertu den arte, une horretan Kitxuk irainak jaso baititu berriz. Talde popularraren Udalbatzako kideen zintzotasuna ez dutela zalantzan jartzen azpimarratu du, eta Kitxu kazetaritzan lizentziaduna dela

Ibon Rodríguez manifiesta que el odio no es el camino e indica que el insulto no se produjo en pleno hasta que se ha tratado este tema en el que se ha vuelto a insultar a Kitxu. Insiste en que no duda de la sinceridad de los corporativos del grupo popular e informa que Kitxu está licenciado en periodismo antes de ir a la cárcel y que

espetxera joan aurretik, eta gero, espetxean, Filosofia, Antropologia eta Teologian lizentziatu zela; zenbait argitalpen idatzi ditu, eta elkarrekin lan egiteko trebetasun handia du. Horregatik guztiagatik, EH Bilduren aholkulari bihurtzeko hautatua izan da, eta berriz hautatuko zutela dio. Andrade jaunak egindako adierazpenekin talde popularreko beste kideek bat ez egiteko itxaropenarekin geratu da. Amaitzeko, Andrade jaunari bere adiskideen artetik nork iraindu duen galdetu dio, eta gogorarazi dio duela sei urte, Urtezahar egun batean, Marisa Arrue eta talde popularreko beste kide batzuekin topo egin zuela, eta ez zela inolako irainik izan tartean.

luego en la cárcel se licenció en Filosofía, Antropología y Teología, que ha escrito diferentes publicaciones y que tiene grandes habilidades para el trabajo en común. Por todo ello ha sido seleccionado para asesor de EH Bildu y que volverían a seleccionarlo. Se queda con la esperanza de que no todos los miembros del grupo popular compartan las manifestaciones vertidas por el señor Andrade. Pregunta finalmente al señor Andrade quiénes de sus amigos le han insultado y le recuerda que hace seis años un día de Nochevieja se encontró con Marisa Arrúe y otros compañeros del grupo popular y que en ningún momento hubo ningún tipo de insulto.

Santiago Sainzek aipatu duenez, mozioaren aurkako botoa emango dute; beren aholkularia defendatu nahi dutela onartu arren, ez zaio iruditzen osoko bilkura pertsonak justifikatzeko foroa denik, eta jarrera hori edozein talderako baliagarria da.

Santiago Sainz manifiesta que van a votar en contra de la moción ya que, aunque reconozca que quieran defender a su asesor, no cree que el pleno es el foro para justificar a personas y esta postura es válida para cualquier grupo.

Eduardo Andradek ez duela inolako gorrotorik aipatu du; izan ere, aholkulariarekin askotan hitz egin du. Bere errespetu guztia zor dio, baina ez du barkamena eskatuko terrorista bati terrorista deitzeagatik, ez baita justifikatu gabeko irain bat. Ez duela inolako damurik ikusten adierazi du, haren aholkulari gaitasunak ez ditu zalantzan jartzen, eta kexu agertu da administrazio publikoak ETAko kideak izandakoak kontratatzea debekatzen duen legerik ez izateagatik. Zigor guztia ez duela bete uste du, eta ez dela ere birgizarteratu.

Eduardo Andrade indica que no tiene ningún odio y de hecho ha conversado con el asesor en muchas ocasiones. Tiene todo su respeto pero no va a pedir perdón por llamar terrorista a un terrorista ya que no se trata de una ofensa injustificada. Indica que no ve ningún arrepentimiento y no pone en duda sus capacidades de asesor y lamenta que la ley no prohiba que la administración pública contrate a gente que ha formado parte de ETA. Estima que no ha cumplido ni toda la pena ni se ha reinsertado.

Oier Iturraldek Eduardo Andraderengana jo du, eta bakarrik geratu dela adierazi dio. Bere alderdikideek ere aurrera egin behar

Oier Iturralde se dirige a Eduardo Andrade indicándole que se ha quedado sólo. Recuerda que hasta sus propios compañeros de grupo han

dela esan dutela gogorarazi du, mina eragiten duela (gero eta gutxiago), baina nahikoa dela, eta bere hitzak nahiz ekintzak neurtu ditzala eskatu dio, bere alderdiak ere ez baititu onartzen. Amaitzeko, Kitxuri babesa ematen diola adierazi du.

indicado que hay que avanzar, que genera daño, cada vez menos, pero ya es suficiente y le pide que mida sus palabras y sus actuaciones que no las comparte ni su grupo. Finaliza manifestando su apoyo a Kitxu.

Eduardo Andradek erantzun du nahiago duela bakarrik bidelagun kaskarrak alboan izatea baino, eta terroristek eta haien inguruneak eragindako mina aipatu du. Printzipio batzuk defendatzeagatik (haiek defendatzeagatik beste batzuk hil nahi izan zuten) 12 urtez eskolarekin ibili zela gogorarazi du; ez du zentzurik borreroek biktimei azalpenak eskatzea, eta zigortzen denetik hiltzen den arte, terrorista bat terrorista bat izango dela berretsi du.

Eduardo Andrade replica que es mejor solo que mal acompañado e indica el dolor que han causado los terroristas y todo su entramado. Recuerda que ha pasado 12 años escoltado por defender unos principios por los que otros querían matarle, no tiene sentido que los verdugos pidan explicaciones a las víctimas y se ratifica en que un terrorista será terrorista desde que es condenado hasta su muerte.

Mozioa bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: aldeko 8 boto (EH Bildu, GUK), aurkako 6 boto (PP eta Ciudadanos) eta 12 abstentzio (EAJ-PNV eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 8 votos a favor, EH Bildu, GUK; 6 votos en contra, PP, Ciudadanos; 12 abstenciones, PNV, PSE-EE.

Koldo Iturbek EAJ-PNVren botoa azaldu du. Eduardo Andraderen adierazpenak sare sozial batean egin direla esan du, eta eztabaida hori osoko bilkurara ekartzea ez dela egokia, nahiz eta salagarria gertatu; izan ere, Kitxuk zigorra bete du, bere eskubide zibilak ditu eta enplegatu publiko guztiei, baita Kitxuri ere, babes osoa ematen die.

Koldo Iturbe explica el voto del PNV indicando que las manifestaciones de Eduardo Andrade se realizan en una red social y no cree conveniente traer ese debate al pleno aunque sea algo denunciable porque Kitxu ya ha cumplido su condena y tiene sus derechos civiles y manifiesta el apoyo a todos los empleados públicos y también a Kitxu.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Pasa den otsailaren 18an Alderdi Popularreko zinegotzia den Eduardo Andradek Twitter sare sozialaren bidez publikoki terrorista gisa kalifikatu zuen gure talde politikoko aholkulari,

El 18 del presente mes el concejal del Partido Popular calificó públicamente de terrorista a través de la red social Twitter a nuestro compañero Iñaki Gonzalo Casal que trabaja como asesor

lankide eta udal honetako behin-behineko langilea den Iñaki Gonzalo Casal.

Jakina da bere zigorra osotasunean bete duen pertsona bere eskubide zibil eta politiko guztien jabe dela. Gure kideak 19 urte eman ditu estatu espainoleko espetxeetan eta epaiaz kanpoko zigorra den sakabanaketa pairatu du, baita aipatu ere Parot Doktrinaren ondorioz, bere kondena luzatu dutela bidegabeki. Alderdi Popularrak behin eta berriro goraipatzen duen zuzenbizko estatuak printzipio hau ezartzen du, eta printzipio horren eta espetxe zigorraren helburuen artean ez omen dago mendekuzko zigorra.

Eztabaidatzen ari garena ez da terrorista hitza eta bere esanahia, horren gainean iritzi ezberdinak egon baitaitezke. Hemen gakoa da gure lankide bati delitu bat egotzi zaiola, hots, terrorismo delitua eta gainera tartean argitaratu dela. Beraz, kalumnia delitu baten aurrean gaude, horregatik, Andrade jaunak bere hitzengatik ziurrenik azalpenak eman beharko ditu dagokion lekuan. Bere jarrera ezin da justifikatu Iñaki Gonzalo Casal, Kitxu, bere garaian delitu horregatik zigortua izanagatik, bere kondena jada bete duelako.

Aurreko guztiagatik EH Bildu udal taldeak udalbatzari honako akordio proposamena egiten dio bere onarpenerako:

1- Getxoko Udaleko osoko bilkurak Iñaki Gonzalo Casalek, EH Bildu udal taldeko aholkulari gisa egiten duen lana aitortu egiten du.

de nuestro grupo municipal y en consecuencia es trabajador eventual de este Ayuntamiento.

Es evidente que una persona que ha cumplido su condena, pasando un total de 19 años de cárcel en el estado español y soportando castigos extrajudiciales como es la dispersión o el alargamiento de su condena a través de la doctrina Parot, es una persona en plena posesión de sus derechos civiles y políticos. Entendemos por otro lado que el estado de derecho que el Partido Popular tanto gusta de airear consagra este principio, así como los objetivos de las penas de prisión, entre los cuales no figura el castigo vengativo.

No está en discusión el término terrorista y su significado, discusión sobre la que sin duda las opiniones serían diversas. La cuestión es que a un compañero nuestro se le ha atribuido un delito, como es el delito de terrorismo, y esto se ha hecho mediando publicidad, lo que podría entenderse como un delito de calumnia, cuestión esta que muy posiblemente el señor Andrade deberá aclarar donde corresponda. Y no es desde luego justificación alguna señalar que fue condenado en su día por dicho delito, porque Iñaki Gonzalo Casal, Kitxu, ya ha cumplido su condena.

En consecuencia el grupo municipal de EH Bildu solicita a este pleno la adopción del siguiente acuerdo:

1-. El pleno municipal del Ayuntamiento de Getxo reconoce el trabajo que como asesor municipal del grupo municipal de EH Bildu, Iñaki Gonzalo Casal, desarrolla en este ayuntamiento.

2- Getxoko udaleko osoko bilkurak adierazi nahi du EH Bilduko udal langile honen lana getxoztarren bizitza baldintzak hobetzera zuzenduta dagoela. Lan hau EH Bilduren proiektu politikoaren baitan garatzen den heinean, ezadostasun politikoak edo iritzi ezberdinak egon daitezkeen arren, langile honek gainerako talde politiko eta udal langileek bezala errespetu osoa merezi du.

2-. El pleno municipal del Ayuntamiento de Getxo declara que el trabajo que el trabajador municipal EH Bildu está encaminado a la mejora de las condiciones de vida de los getxoztarras, enmarcado en todo caso en el proyecto político de EH Bildu y sobre el que aun existiendo discrepancias políticas o de criterio es exigible el máximo respeto, al igual que al resto de grupos municipales y trabajadores y trabajadoras municipales.

3- Getxoko udaleko osoko bilkurak Eduardo Andrade zinegotziari galdatzen dio bere adierazpenetan publikoki atzera egin dezala.

3-. El pleno municipal del Ayuntamiento de Getxo exige al concejal Eduardo Andrade que se retracte públicamente en sus afirmaciones.

4- Getxoko udaleko osoko bilkurak Eduardo Andrade zinegotziari eskatzen dio kritika politikoa errespetu pertsonal eta demokratikoaren mugen baitan egikaritu dezala.

4-. El pleno municipal del Ayuntamiento de Getxo insta al concejal Eduardo Andrade a ejercer la crítica política dentro de los límites del respeto personal y democrático.

**GALDE-ESKEAK**

Arantza Gutierrezek alkateari galdetu dio Osasun kontseilariak martxoaren 9ko bilkurarako deitu dion; Urdulizko ospitaleak emango dituen zerbitzuei buruzko bilera izango da, Getxori eragiten dioten zerbitzuak. Gainera, osoko bilkuran egin diren adierazpenak entzun ostean, sexista ez den hizkuntzari buruz Udalbatzako kideen artean ikastaro bat egitea aztertu dadin eskatu du.

Alkateak erantzun du Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Getxon ospitale berria irekitzeak zer ondorio izango dituen jakinaraziko diola, nahiz

**RUEGOS Y PREGUNTAS**

Arantza Gutiérrez pregunta al Alcalde si el Consejero de Salud le ha convocado a la reunión que el próximo día 9 de marzo se va a celebrar acerca de los servicios que va a ofrecer el hospital de Urduliz porque afectarán a Getxo. Asimismo ruega que ante las manifestaciones que se han venido produciendo en el pleno se valore realizar algún curso con los corporativos sobre el lenguaje no sexista.

El Alcalde contesta que el departamento de Salud del Gobierno Vasco le va a informar de los efectos de la apertura del nuevo hospital en Getxo

eta ez dakien bilera batean edo beste era batera egingo den hori; dena den, jasotako informazioa helaraziko dela esan du. Eskaerari dagokionez, osoko bilkura honetan gehiegizko testosterona izan dela uste du alde guztietatik, eta ez dela osoko bilkura eredugarriena izan. Hizkuntza neurtzea beharrezkoa dela azpimarratu du, bai eta Udalbatzako kide guztienganako errespetua ere.

si bien no sabe si se hará a través de una reunión o de otra forma y que trasladará la información que reciba. Respecto al ruego cree que en este pleno ha habido un exceso de testosterona por todas las partes y que no va a pasar por ser un pleno ejemplar. Insiste en que es necesario moderar el lenguaje y el respeto en todos los corporativos.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilkura bukatutzat eman du arratsaldeko bederatziak eta hogeita hamabost minutu direnean. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Sr. Presidente levantó la sesión siendo las veintiún horas y treinta y cinco minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.